

Foru Aldundiak 80.105 euro bideratuko ditu Aemar-era, esklerosi anizkoitza duten pertsontzako jarduerak egin ditzan

Gasteiz, 2018ko urriaren 15a. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen (GOFE) Administrazio Kontseiluak —Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailari atxikitako erakunde autonomoa da GOFE— onetsi du lankidetzaren hitzarmen berria izenpetzea Aemar Arabako Esklerosi Anizkoitzaren Elkartearekin, elkarteak bere jardunak eta kolektibo horrentzako zein haien senideentzako programak eta jarduerak egin ditzan. Hitzarmen horren 2018rako zenbatekoa 80.105 euro izango da.

Hitzarmen hori ez da foru erakundearen zuzeneko eskumenen zerbitzuak emateko; halere, GOFEk lurraldeko hainbat elkarterekin sinatuta dauka, elkarte horien xedeetako bat delako arreta ematea mendetasuna, desgaitasuna edo hainbat gaixotasun daukaten edo gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen.

Aemar Arabako Esklerosi Anizkoitzaren Elkartearen irabazteko xederik gabeko erakunde pribatua da, 1992an sortua, eta esklerosi anizkoitza duten pertsonen bizi kalitatea hobetzearen eta haien integrazioaren alde dihardu lanean. Bere jardueraren ardatza da programak lantzea, esklerosi anizkoitza dutenei eta haien senideei arreta eta babesa emateko, eta gaixotasunaren berri zabaltzea eta herritarrak sentsibilizatzeko. Gaur egun, 656 kide ditu: horietatik 210, esklerosi anizkoitza duten pertsonak dira, eta, 446, bazkide laguntzaileak.

GOFEk eta Aemar-ek 1997. urteaz geroztik dihardute elkarlanean, GOFEn laguntzetarako deialdi publikoetan parte hartzearen bidez, bai eta elkartearen jardunean eta jardueren gauzatzean ere.

Hainbat programatakoak izaten dira elkarteak prestatzen dituen eta hitzarmenaren zati diren jarduerak. Informazioa eta aholkuak ematen ditu; fisioterapia, logopedia, terapia okupazional, lasaitze eta hipoterapia programak prestatzen ditu, eta logopedia zerbitzua dauka. Halaber, Activa-t proiektua gauzatzen du, zeinaren xedea baita zenbait tresna eskaintzea, gaixotasunaren



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Prentsa Oharra Nota de Prensa

autogestioa eta bizi estilo aktibo eta osasungarria sustatzeko. Aemar-ek beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen ditu, besteak beste aisialdi eta denbora librerako programak eta gizartea sentsibilizatzeko kanpainak, hala nola ‘Saskiratu’ eta ‘Busti zaitez’ kanpaina beteranoak.